

AZTERKETAK | 42

2021eko MAIATZA

HEHko fiskalitateari buruzko txostena: erreforma justu baten premia

HEHko fiskalitateari buruzko txostena: erreforma justu baten premia

0. Sarrera	3
1. Nolakoa da gure zerga-sistema?	4
1.1. Orokorra	4
1.2. Itundutako zergak	5
2. Itundutako zergen diru-bilketa 2020an	8
3. Itundutako zergen bilakaera (2007-2020)	9
3.1. Diru-bilketa guztira	9
3.2. Zerga nagusiak	11
3.3. Zuzeneko zergak: lan- eta kapital-errentak	12
4. Sozietateen gaineko zergaren analisia	16
4.1. Tasa erreala	16
4.2. 2019an zenbait enpresa nagusik ordaindutako zergak	18
4.3. Iruzur fiskala	20
5. Presio fiskala eta europa baitako konparazioa	21
5.1. Guztizko presio fiskala	21
5.2. Sozietateen gaineko Zergaren presio fiskala	23
6. Ezberdintasunak zerga-ordainketan	24
6.1. Errenta orokorra eta aurrezki-errenta	24
6.2. BGAEak	25
7. Zerga-politikari buruzko ondorioak	25
8. Proposamenak	26
8.1. Zerga-erreforma	27
8.2. Iruzur fiskalaren jazarpena	28
8.3. Zerga-politika EAEko eta Nafarroako parlamentuetan erabaki	28
8.4. Araugintza-ahalmen osoa	28
8.5. Europa baitako harmonizazioa	28

0. SARRERA

Covid-19ak eragindako krisiak diru-bilketaren jaitsiera handia ekarri du. Aurrekontu publikoak asko gehitu beharko lirateke, besteak beste, pandemiaren ondorioz sortutako arazoei aurre egiteko. Horregatik, premiazkoa da fiskalitateari buruzko eztabaida. Urte askotan eztabaida hau sektorerik neoliberalenek bahitu dute kapitalari eta patronalari zergak jaisteko xede bakarrarekin. Azken urte eta hamarkadetan egindako erreformak tankera horretakoak izan dira: sozietateen zergaren jaitsiera, ondarearen gaineko zerga behin-behinean kentzea, errenta altuenentzako zerga-tasa txikiagoak, etab.

ELAk aspaldidanik salatu izan du egungo zerga-sistemaren injustizia, baita hemen biltzen den diru kopurua Europar Batasuneko beste herrialdeetan baino askoz apalagoa dela ere. Horren adibide, sindikatuak iazko maiatzean plazaratu zuen dokumentu politikoa, zeinetan hainbat proposamen egin ziren Covid-19aren krisialdiari bidezko irteera emateko. Proposamen horietako zenbaiten helburua zen enpresek etekinengatik ordaintzen dituzten zergen igoera nabarmena; baita ere ondare eta errenta altuentzat zergak igotzea.

Gure agintarien erantzuna benetan penagarria izan zen. Erabat ukatu zuten aukera hori; areago, eztabaidan hasia bera ukatu zuten. Urkullu, Chivite, Rementeria, Olano eta Gonzalez patronalaren alboan, eskuinean kokatu ziren. Confebaskek aldi hartantxe proposatu baitzuen “aldi baterako errekareru fiskal finalista” bat ezartzea, epealdi jakin baterako, “krisialditik ateratzeko hartu beharrekoa izango den” zorra itzultzeko aukera izate aldera. Hau da, Confebaskek areago ezarriko lituzke zerga igoera horiek, Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Foru Aldundiek baino; honez gero, ezerk ez du harritzen.

Zerga igoera gure agintarientzako lerro gorria da oraindik. Ukapen hori neoliberalismo dogmatikoaren ondorio da, bai eta erakundeek orain baino diru-sarrera dezente gehiago behar dituztela ikusteko gaitasun falta kezkarriaren ondorio ere.

2021eko apirillean Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) proposatu zuen gobernuak errenta altuei eta ondareei berariazko zerga bat aplikatzea (“Elkartasun Zerga” delako bat). Vitor Gaspar NDFko Gai Fiskalen Departamentuburuaren arabera, egokia litzateke ezberdintasun sozialak murrizteko, eta lagungarria larrialdi sanitarioak zein krisi ekonomikoak eragindako beharrezan osatzeko, hauek defizit eta zor publiko mailaren igoera orokorra ekarri baitute.

Garai beretsuan Joe Biden AEBetako presidentek bere zerga-erreforma proposamenaren berri eman zuen, sozietateen zerga igoera ardatz zuela: tasa nominala % 21etik % 28raino igotzea; AEBetatik kanpo lortutako etekinen gaineko gutxieneko %15eko tasa erreala, enpresa handiek paradisu fiskaletara jotzeko duten praktika amaiarazteko. Bidenek, gainera, Sozietateen Zergan mundu mailan %21eko gutxieneko tasa ezarri nahiko luke.

Zerga-erreformaren trena hartu behar dugu. Covid-19aren ondorioz gertatu den diru-bilketaren jaitsiera zorraren igoerarekin konpentsatzen ari da, partzialki eta aldi baterako. Baina inozoa da pentsatzea hori horrela izan daitekeela modu iraunkorrean. Zor publikoaren maila handiegia da dagoeneko. Gainera, 2008ko krisiaren ondoren gertatu zen bezala, gastu publikoarekin nolabaiteko permisibitatea izan ondoren, defizitaren eta zor publikoaren mugak betetzeko eta gastuaren hazkunderari eusteko (gastu-araua) eskakizuna itzuliko da, murrizketa sozialak eraginez.

Baina zifra kontu bat ez ezik, zerga-sistema, auzi politiko bat ere bada. Guk nahi dugun fiskalitatean gehien dutenek gehiago ordaindu behar dute, berdintasun handiagoa duen gizarte batera iristeko; honek esan nahi du, zergak igo behar zaizkiela errenta altuei, enpresei eta kapitalari. Bidezko zerga-sistema baten aldeko konpromisoa agertzen dugu, zeinaren xedea izango den

aberastasunaren birbanaketa justua. Txosten honek bide horretan laguntzeko tresna izan nahi du. Bere asmo nagusia da erakustea aldatzeko aukera badagoela, bestelako zerga-sistema bat beharrezkoa dela eta, beti bezala, borondate politiko kontua besterik ez dela.


1. NOLAKOA DA GURE ZERGA-SISTEMA?

1.1. Orokorra


Lehen atal honetan zerga-sistemaren argazki orokorra egingo dugu ulertzeko zein den zerga-figura egitura, dauden zerga motak eta zer zergapetzen duten. Zerga-sistema edota administrazioek biltzen duten guztia honela dago egituratuta:

- a) *Itundutako zergak* dira Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako foru erakundeek kudeatzen dituztenak, Ekonomia-Itun eta -Hitzarmenaren baitan. 1. eta 2. grafikoetan ikus daitekeenez, diru-bilketaren zatirik handiena osatzen dute, %59,8 EAEn eta %57,6 Nafarroan (2019ko datuak). Honela banatzen dira:
- *Zuzeneko zergak*: hauek zuzenean ordaintzen dituzte pertsonak edo enpresek errenta bat eskuratu edota ondare baten jabe izateagatik. Beraz, aintzat hartzen dute pertsona edo enpresa baten maila ekonomikoa (aberastasuna, ahalmen ekonomikoa). Hego Euskal Herriko administrazioek hauei buruzko legegintza ahalmena dute. PFEZ eta Sozietateen Zerga multzo honetan kokatzen dira.
 - *Zeharkako zergak*: Ondasun jakin batzuen kontsumoa zergapetzen dute, edota ondasunen eskualdatzeak edota titulartasun aldaketak; beraz, ez dute aintzat hartzen zergadunaren ahalmen ekonomikoa. Nahiz eta Foru Aldundiek eta Foru Erkidegoak kudeatzen dituzten, estatu mailan erabakitzen dira. Hauen artean BEZa da nagusi, zergen bolumenean duen pisuagatik.
 - *Tasak eta bestelako sarrerak*.
- b) *Gizarte-kotizazioak*: hauekin finantzatzen da Gizarte Segurantzaren Sistema. Gizarte-kotizazioen sarrerak dira enplegu bolumenaren, kotizazio-tasen eta kotizazio-oinarria diren soldaten baitakoak. Kotizazio hauei buruzko erabakia Estatuak hartzen du; EAEn guztira biltzen den diruaren % 34,8 da, eta Nafarroan, %37 (2019ko datuak).
- c) *Udal zergak*, izenak berak dioen moduan, udal eremuan kudeatzen diren zergak dira; besteak beste, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zerga, Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zerga, etab. Sarreraren %5,4 dira, EAEn zein Nafarroan (2017ko datuak).

1. grafikoa. EAEko zerga-egitura 2019an



2. grafikoa. Nafarroako zerga-egitura 2019an



Iturria: Azterketa Bulegoak egina, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra, Eustat, Eusko Jaurilaritza, Euskal Ogasunaren Urteko Txosten Integratua eta Nafarroako Gobernuaren datuekin.

(*) Udal zergeri buruzko azken datua 2017koa da. Zifra honek ez du aldaketa handirik.

1.2. Itundutako zergak


Txosten honetan itundutako zergak behatuko ditugu, Hego Euskal Herriko administrazioek hauek kudeatzen baitituzte. Anlisi hori ikuspuntu desberdinetatik egingo dugu.

Lehenik, diru-bilketa nondik datorren aztertuko da, zuzeneko edo zeharkako zergen ikuspuntutik. 2020an zuzeneko zergen pisua handiagoa izan zen kontsumo pribatua murriztu egin zelako, eta honek zeharkako zergen diru-bilketari eragin zion. EAEn eta Nafarroan zuzeneko zergekin itun-


6. or

dutako zergen %50,9 eta %53,2 bildu zen, hurrenez hurren. Hala ere, hau unean uneko egoera da, krisialdian gertatu ohi dena, izan ere, aurreko urteetan zergadunen ahalmen ekonomikoa aintzatesten ez duten zergek (zeharkakoek) pisu handiagoa izan baitzuten diru-bilketan.

3. grafikoa. EAEko zerga-egitura itundutako zergetan 2020an



4. grafikoa . Nafarroako zerga-egitura itundutako zergetan 2020an




Iturria: Azterketa bulegoak egina, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Sailaren eta Nafarroako Foru Ogasunaren datuekin.

HEHko fiskalitateari buruzko txostena: erreforma justu baten premia


Bigarrenik, adierazten da zerga-figura nagusiak zeintzuk diren, biltzen den diruaren arabera. Nahiz eta 2020an jaitsiera izan zuten, BEZarekin eta zeharkako zerga bereziekin bildu zen diru gehien: %46,5 EAEn eta %43,6 Nafarroan; ondoren laneko PFEZa izan zen (% 38 bi lurraldeetan). Sozietateen zergak EAEn %7,5 besterik ez zuen ekarri, eta %7,2 Nafarroan. Beraz, oso hedatuta dagoen uste bat alde batera utzita, alegia enpresek betetzen dituztela kutxa publikoak, datu enpirikoek oso bestelako errealitate bat islatzen dute.

7. or

5. grafikoa. Zerga motaren arabeko diru-bilketa EAEn 2020an



6. grafikoa. Zerga motaren arabeko diru-bilketa Nafarroan 2020an



Iturria: Azterketa bulegoak egina, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Sailaren eta Nafarroako Foru Ogasunaren datuekin.

2. ITUNDUTAKO ZERGEN DIRU-BILKETA 2020AN

Puntu honetan aztertuko da 2020ko diru-bilketa eta krisiak harengan izan zuen eragina. Azken hiletan adierazi den bezala, jarduera ekonomikoaren geldialdiaren eta sortutako krisiaren ondorioz, administrazioen sarrerak zeharo uzkurtu ziren pasa den urtean. 2020ko jaitsiera, hasieran aurreikusi zenarekiko, EAEn %11,5koa eta Nafarroan %10 ingurukoa izan zen.

• EAE

EAEko zerga itunduen diru-bilketaren datuen arabera, guztira 13.949,5 milioi euro bildu ziren, hots, 2019arekiko %9,8ko jaitsiera eman zen. Hau ez zen berdin gertatu zerga guztietan: lan-etekin eta jarduera profesionaletan bere horretan geratu zen, baina beste zerga guztietan jaitsiera orokorra gertatu zen.

Krisi ekonomikoak eragin handiagoa izan zuen sozietateen zerga bidezko sarreretan, %20 jaitsiera eman baitzen. Uzkurtze honek hainbat arrazoi izan zituen, besteak beste, Foru Ogasunen zerga-politika, izan ere, Administrazioen erabaki nagusia izan zen enpresek 2019an etekinengatik ordaindu beharreko zergen zati bat barkatzea. Opari hau bat dator lurralde hau fiskalki errenta altu, enpresa eta kapitalentzat low cost eremu bihurtzeko helburuarekin.

BEZ eta zeharkako zerga bidez 2019an baino kopuru askoz txikiagoa bildu zen. Kontsumo pribatuaren jaitsierak eragin negatiboa izan zuen zerga hauen bilketan, eta jaitsiera %14,3an kokatu zen.

1. taula. EAEn 2020an metatutako diru-bilketa (milioi eurotan)

	2020	2019	Aldea %
Laneko etekinak eta Jarduera profesionalak	5.316,8	5.310,3	0,1
PFEZ guztira	5.650,2	5.713,7	-1,1
Sozietateen Zerga	1.042,5	1.303,8	-20
ZUZENEKO ZERGAK	7.100,3	7.407,1	-4,1
BEZ guztira	5.163,8	6.028,6	-14,3
ZEHARKAKO ZERGAK	6.772,5	7.952,8	-14,8
TASAK ETA BESTEAK	76,4	109,7	-30,3
ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA	13.949,2	15.469,6	-9,8

Iturria: Azterketa Bulegoak egina, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Sailaren datuekin.

• NAFARROA

Nafarroan itundutako zergen bidez 2020an 3.627,1 milioi euro bildu ziren. Datuek adierazten dute iazko ekitaldiarekiko jaitsiera %8koa izan zela, EAEn gertatutakoa baino jaitsiera txikiagoa.

Hala ere, neurri txikiagoan bada ere, zifren joera bat dator. Diru-bilketa soilik gehitu zen lan-atxiki-penetan, % 1,8; aldiz, Sozietateen zergarekin bildutako diruak %5 egin zuen behera. Kasu hone-tan, EAerekiko aldea izugarria izan zen, Nafarroan enpresei laguntzeko neurri berdinak aplikatu ez zirelako. BEZaren ekarpena aurreko urtearekiko gehien jaitsi zen, %15, hain zuzen; lehenago aipatu den bezala kontsumo pribatua uzkurto egin zelako eman zen beherakada hau.

2. taula. Nafarroan 2020an metatutako diru-bilketa (milioi eurotan)

	2020	2019	Aldea %
Laneko etekinak eta Jarduera profesionalak	1.376,9	1.352,7	1,8
PFEZ guztira	1.527,8	1.533,1	-0,3
Sozietateen Zerga	260,3	274,0	-5
ZUZENEKO ZERGAK	1.930,6	1.953,9	-1,2
BEZ guztira	1.125,5	1.324,2	-15
ZEHARKAKO ZERGAK	1.671,4	1.956,7	-14,6
TASAK ETA BESTEAK	25,1	30,5	-17,7
ZERGA ITUNDUAK GUZTIRA	3.627,1	3.941,1	-8

Iturria: Azterketa Bulegoak egina, Nafarroako Ogasunaren datuekin.

3. ITUNDUTAKO ZERGEN BILAKAERA (2007-2020)

Ezinbestekoa da zerga-sistemaren testuingurua ulertzea aldaketak eskatu ahal izateko. Atal honetan, azken urteetako bilakaera zein izan den aztertuko dugu. Batetik, bilketa osoak izan duen bilakaera aztertuko dugu, eta bestetik, zerga nagusienak. Azkenik, zuzeneko zergen analisisa egingo dugu, lan- eta kapital-errentetan sailkatuta, zeintzuetan Foru Aldundiek eta Foru Erkidegoak benetako ahalmen araugilea duten.


3.1. Diru-bilketa guztira

Itundutako zerga bidezko diru-bilketa erabat lotuta dago egoera ekonomikoarekin; hala ikus daiteke 7. eta 8. grafikoetan. Hauetan egiaztatzen da ekonomia -BPG bidez neurtuta- hazten denean, diru-bilketa ere handiagoa dela; baina uzkuritzen denean, baita murrizten dela ere.

EAEko eta Nafarroako zerga-bilketaren bilakaera oso antzekoa izan da. Administrazioen diru-bilketa 2008ko krisiarengatik baldintzatu egon zen hamarkada batez baino gehiago. Krisi osteko ekitaldietan, diru-bilketa ez zen berreskuratu; BEZaren bi erreforma behar izan ziren (2010an tasa orokorra % 18ra igo zen eta 2012an, % 21era), berriro igotzen has zedin. Hala ere, guztizko diru-bilketak hamar urte behar izan zituen 2007ko mailara itzultzeko. Bi urte geroago, 2019an, bi lurralde-eremuetan administrazioek bildu zuten kopurua inoizko handiena izan zen.


Haatik, aurreko atalean aipatu den legez, krisi ekonomikoaren eta gobernuek ezarritako zerga-politikaren ondorioz, 2020an diru-bilketa ostera ere uzkurto egin zen. 2020an diru-bilketaren zifrak ia-ia 2007ko mailan kokatu ziren.

7. grafikoa. EAeko itundutako zergen diru-bilketaren bilakaera (milioi eurotan)



Iturria: Azterketa Bulegoak egina, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Sailaren datuekin.

8. grafikoa. Nafarroako itundutako zergen diru-bilketaren bilakaera (milioi eurotan)




Iturria: Azterketa Bulegoak egina, Nafarroako Ogasunaren datuekin.

3.2. Zerga nagusiak

Diru-bilketa orokorraren analisia gauzatu ondoren, atal honetan aztertuko da zerga-figura nagusien bilketak izan duen bilakaera: BEZ, laneko PFEZ eta Sozietateen gaineko Zerga. Azken urteotan EAEn eta Nafarroan izan diren joerak bat datoz: batetik, laneko BEZagatik eta PFEZgatik bildutakoa handitu da; eta, bestetik, Sozietateen gaineko Zerga bidez biltzen denaren murrizketa.


- BEZarekin biltzen den dirua, kontsumo pribatuarekin lotuta dago, eta horregatik gorabehera handiagoak izan ohi ditu. 2007 ondorengo urteetan jaitsiera handia izan zuen, baina aipatutako 2010eko eta 2012ko erreformen eta ekonomiaren susperraldiaren ondorioz. Honek kontsumo pribatuaren hazkundera ekarri zuen, eta zerga honekin bildutako kopurua gehitzen hasi zen 2012an EAEn eta 2013an Nafarroan. Alabaina, 2017tik aurrera bilakaera hori moteldu egin zen; gainera, 2020an BEZaren diru-bilketak jaitsiera nabarmena izan zuen krisi ekonomikoaren eraginez.
- Laneko PFEZ bidez biltzen den diru kopurua enpleguak eta enplegua dutenek jasotzen dituzten soldatek baldintzatzen dute. Kopuru honek ez zuen gorabehera handirik izan susperraldi ekonomikoa hasi arte. 2013tik aurrera, biztanleria okupatua hazten hasi zenean, zerga honekin bildutako kopurua ere handitu egin zen. Azken urtean langabeziak gora egin eta landunek behera egin zuten arren, hazkunde horrek ez zuen etenik izan.
- Aitzitik, Sozietateen gaineko zergaren (SZ) bidezko sarrerak badirudi ez doazela ekonomiaren hazkunde-zikloekin batera. Hau da, krisiak zerga honekin bildutako kopurua uzkuertzea ekarri zuen, baina ondorengo hazkunde ekonomikoak eta etekinen igoerak ez zuten inolako eraginik izan bilketan. 9. eta 10. grafikoek adierazten dute SZren sarrerak 2007 eta 2010 bitartean erdira jausi zirela EAEn eta heren batera Nafarroan. 2010an hasi eta 2020ra arte, nahiz eta susperraldia gertatu eta enpresen etekinak hazi, hori ez da igarri zerga honen bilketak izan duen bilakaeran.

9. grafikoa. Zerga nagusiekin bildutako diruaren bilakaera EAEn (milioi eurotan)



Iturria: Azterketa Bulegoak egina, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Sailaren datuekin.

10. grafikoa. Zerga nagusiekin bildutako diruaren bilakaera Nafarroan (milioi eurotan)



Iturria: Azterketa Bulegoak egina, Nafarroako Ogasunaren datuekin.

3.3. Zuzeneko zergak: Lan- eta kapital-errentak

Atal honetan, zuzeneko zergak errenta motaren ikuspegitik aztertuko dira. Zuzeneko zergen sailkapena lagungarri da ikusarazteko biltzen den diruaren zama noren bizkar erortzen den eta, horrenbestez, bilakaera nolakoa izan den. Sailkapena honakoa da:

Lan-Errentak:

- Laneko eta jarduera profesionaletako etekinaren atxikipenak (*).
- Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga.

Kapital-Errentak:

- Sozietateen gaineko Zerga.
- Enpresa eta kapitalen PFEZ:
 - Kapital higigarri eta higiezina.
 - Ondare-irabaziak.
 - Ordainketa zatikatuak.
 - Kreditu erakundeetako gordailuen gaineko zerga.
- Ondarearen gaineko zerga eta oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga.

Gainerakoak:

- Energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga.
- Loteria-sarien gaineko karga berezia.
- Azalera handien gaineko zerga (Nafarroa).

(*) Ogasunek ez dituzte errenta hauek xehatzen.

• EAE


Lan-errentek zuzeneko zergen % 75,1 osatu zuten 2020an (5.367,6 milioi euro). Ia zenbateko hori guztia (% 90etik gora) lan-etekinengatik bildu ziren, hots, soldatapekoek ordaintzen dituzten zergengatik.

Kapital-errentak zuzeneko zergen bidez bildutako diruaren % 24,4 baino ez ziren izan, hau da, 1.742,2 milioi euro. Horietatik:

- Zerga zuzenen %14,6 (1.042,5 milioi euro) sozietateen zerga bidez bildu zen.
- Enpresa eta kapitalen PFEZ atxikipenekin 400,3 milioi euroren sarrerak izan ziren, %5,6a.
- Ondarearen gaineko zerga eta oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga bidez bildutako kopurua 299,4 milioi euro izan ziren, hots, zuzeneko zerga bidezko %4,2.

Zuzeneko beste zergek %0,5 ekarri zuten (37,2 milioi).

11. grafikoa. 2020ko diru-bilketa lan- eta kapital-errentengatik sailkatuta



Iturria: Azterketa Bulegoak egina, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Sailaren datuekin.

Honen ondorioa argia da: lan-errentek sostengatzen dute EAEko diru-bilketa; lau eurotik hiru lan-errentetatik datoz.


Ondoren azalduko da zuzeneko zergek 2008ko krisitik hona izan duten bilakaera.

Esanguratsua da laneko PFEZaren bilketak zuzeneko zergetan izan zuen pisua %71,5etik %75,4ra igo zela azken urtean. Baina are deigarriagoa da 2007. urtearekin alderatzen bada, %60,4ko pisua izatetik %75,1era igaro zen. Hau da, 14,7 puntuko igoera.

Kapital-errentek, aldiz, gero eta ekarpen urriagoa egiten dute. 2008ko krisi aurretik kapital-errenten pisua %36,9koa zen; 2020an, berriz, portzentaje hori %24,4raino jaitsi zen, hots, 15,2 puntu.

- Sozietateen zergak duen pisua ez zen soilik azken urtean murriztu (%17,4tik %14,6ra); 2007tik hasita % 29,1tik %14,6ra erori zen. Alegia, sozietateen zerga bidez biltzen den diru kopurua ia %50 uzkuritu zen azken urteetan.
- Enpresa eta kapitalen PFEZ bidez bildutako kopurua ere jaitsi egin zen, %7,2tik %5,6ra, zerga berriak ezarri diren arren, esaterako kreditu-erakundeetako gordailuen gainekoa.
- Ondarearen gaineko zerga eta oinordetza eta dohaintzen gaineko zergarekin bildutako kopurua apur bat gehitu zen (%3,3tik %4,2ra), zergadun gehiago izan zelako.

12. grafikoa. Lan- eta kapital-errenten % bilakaera



Iturria: Azterketa Bulegoak egina, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Sailaren datuekin.

• NAFARROA


Lan-errentek 2020an zuzeneko zergen %72,3 osatu zuten (1.376,9 milioi euro).

Kapital-errentek, aldiz, soilik %25,6, 487,1 milioi euro. Horietatik:

- %13,7 (260,3 milioi euro) sozietateen gaineko zerga bidez bildu zen.
- Enpresa eta kapitalen PFEZ atxikipenekin 124,8 milioi euro sartu ziren, hots, %6,6.
- Ondarearen gaineko zerga eta oinordetza eta dohaintzen gaineko zergarekin zeharkako zergen %5,4 bildu zen (102 milioi).

Gainerako zuzeneko zergekin bildutako kopurua 40,5 milioi izan ziren, %2,1.

13. grafikoa. 2020ko diru-bilketa lan- eta errenta-kapitalengatik sailkatuta



Iturria: Azterketa Bulegoak egina, Nafarroako Ogasunaren datuekin.


EAEko datuen aldean, antzeko ondorioa atera dugu: Nafarroan ere lan-errentek egiten dute zerga-ekarpenik handiena. Ondoren zuzeneko zergen bilakaera aztertuko dugu:

Lan-errentei dagokienez, zuzeneko zergetan duten pisua 2007tik 2020ra 17 puntutik gora gehitu zen: %54,9tik 72,3ra igo zen.

Kapital-errenten ekarpena, aldiz, askoz ere txikiagoa izan zen; 2007tik aurrera ia 20 puntu jaitsi baitzen. Zuzeneko zergetan %45,1etik %25,6ra jausi ziren. Honek esan nahi du 2007ko portzentajeari eutsi izan balitzaio egun 432 milioi euro gehiago bilduko litzatekeela kapital errentekin.

- Sozietateen zerga %34tik %13,7ra pasa zen. Hau da, bildutako kopurua %60 murriztu zen azken urteetan.
- Enpresa eta kapitalen PFEZ bidez biltzen den dirua ere jaitsi egin zen, %8,6tik %6,6ra, nahiz eta zerga berriak ezarri ziren, esaterako kreditu-erakundeetako gordailuen gainekoa.
- Ondarearen eta oinordetzaren zerga bidez bildutako kopurua %2,5etik %5,4raino pasa zen. Argitu beharra dago 2007an ez zegoela ondarearen zergarik. Hortaz, oinordetza zergarekin alderatuz gero, portzentajea ez zatekeen mugituko.

14. grafikoa. Lan- eta kapital-errenten %aren bilakaera



Iturria: Azterketa Bulegoak egina, Nafarroako Ogasunaren datuekin.

Zergen bilakaera aztertu ondoren, ondorio argigarri bat atera daiteke: lan-errentek kutxa publikoetara gero eta ekarpen handiagoa egiten dute, eta kapital-errentek, urriagoa. Zehazki, kapital-errentengatik bildutako kopuruaren jaitsiera, batez ere sozietateen zergaren eraginez gertatu da. Hurrengo atalean aztertuko da honen zergatia, eta zer dela eta iritsi garen egoera honetara.

4. SOZIETATEEN ZERGAREN ANALISIA

Jarraian, sozietateen gaineko zerga hainbat ikuspuntutatik aztertuko da. Lehenik enpresei aplikatzen zaien tasa erreala analizatuko da; bigarrenik, EAEko eta Nafarroako hainbat enpresa nagusik ordaindutako zergak aztertuko dira, eta azkenik, enpresen eta autonomoen iruzur fiskalari erreparatuko diegu.

4.1. Tasa erreala

Sozietateen zergak, mekanismo ugari eskaintzen du enpresek azkenean ordaintzen duten zenbatekoa murrizteko. Horregatik, alde handia dago tasa nominalaren eta errearen artean (hau da, arauan ezarrita dagoenaren eta benetan ordaintzen denaren artean).

Tasa nominalean ez bezala, tasa efektiboan eztabaida dago egin beharreko kalkulari dagokionez; izan ere, ez dago modu espezifikoan mugatuta, eta erabiltzen den kalkuluaren arabera ehuneko handiagoa edo txikiagoa emango digu. Aldea dago izendatzailean erabiltzen den aldagarrian; zenbakitzailea beti zergadunak ordaindutako zerga erreala da.

Estatuko Zerga-Agentziak (ZA) bi metodo erabiltzen ditu:

1. Etekinaren gaineko tasa erreala. Kuota likidoa (enpresek ordaintzen dutena) eta kontabilitate-emitza (KE) positiboa (enpresek duten etekina) erlazionatzen ditu.
2. Zerga-oinarriaren (ZO) gaineko tasa. Kuota likidoa eta zerga-oinarria (emitza fiskala) zatikatzen ditu. Etekinaren eta zerga-oinarriaren arteko aldea kalkulatu da kontabilitate-emitzaren zuzenketak kenduz. Zuzenketa hauen artean hurrengoak daude: zergapetze bikoitzaren salbuespena atzerrian lortutako dibidendu eta errenta-etekinetakako partaidetzak; enpresa-taldean kontsolidazio bidezko doikuntzak, zeintzuk aukera ematen duten modu automatikoan konpentsatzeko talde fiskal bereko sozietateen arteko emitza positibo eta negatiboak; zenbait onura fiskal, eta beste batzuk.

Horrenbestez, kalkulua zerga-oinarriaren gainean eginez gero tasa erreala handiagoa izango da kontabilitate-emitza positiboaren gainean egingo balitz baino. Zerga-Agentziaren datuek horixe adierazten dute: estatu mailako azken datuen arabera (EAE eta Nafarroa alde batera utzita) etekinaren gaineko tasa erreala 2020an %8,3koa izan zen, eta zerga-oinarriaren gaineko %19,4koa.

Sozietateek duten ahalmen ekonomikoaren arabera zenbat zerga ordaintzen dituzten neurtu nahi dugunean, zalantzarik gabe kontabilitate-emitza positiboa hartu behar dugu aintzat. Kalkulu honek emango luke gure lurraldean sozietateen zergaren benetako argazkia.

Bizkaiko Ogasunaren urteroko txostenean aitorten kontsolidatua kontzeptuka sailkatzen da. Nahiz eta likidazio-eskema ez den estatuko ZAren berbera, kalkulua egin daiteke. Eta honek erakusten du enpresek etekinen gainean benetan ordaintzen duten tasa Bizkaian %8,2koa dela; hots, eurek esaten duten %20tik oso urrun, eta arauak ezarritako %24tik are urrunago.

3. taula. 2018ko Sozietateen Zergako tasa erreala

	Bizkaia
ZO gaineko tasa erreala (%)	%20,50
KE>0 gaineko tasa erreala (%)	%8,21

Iturria. Azterketa Bulegoak egina, Bizkaiko Foru Aldundiaren txosteneko datuekin.

• Ogasunek benetako datuak ezkutatu egiten dituzte

Zerga Koordinaziorako Organoak (zeina Eusko Jaurlaritzak eta hiru Foru Aldundiek osatzen dute) bere urteroko txosten integratuan (azken datuak 2017koak dira) kalkulua zerga-oinarriaren gainean egiten du, eta tasa erreala %19,6koa dela dio. Txosten horretan ez da agertzen kontabilitate-emitza positiboaren gaineko tasa, ezta enpresen etekina ere; beraz, ezin da kalkulurik egin. Nafarroan gauza bera gertatzen da: ogasunak bi tasa erreala aipatzen ditu (%16,1 eta %18,6), baina horietako batek ere ez du islatzen etekinen gaineko portzentaje erreala.

Hau ez da kasualitatea; agerian geratzen da erakundeek informazio garrantzitsua ezkutatu dutela eta enpresek benetan ordaintzen dutena baino gehiago ordaintzen dutela sinetsarazi nahi dute.

4.2. Zenbait enpresa nagusiek 2019an ordaindutako zergak

Analisia kontu zehaztutara eramatea beharrezkoa da; orain arte egindako azterketan hainbat iturrik emandako datuekin argazki orokor bat egin dugu enpresek ordaintzen duten zergei buruz. Atal honetan, aldiz, kontu ofizialen eta auditoretza-txostenen bidez, 2019an irabaziengatik Ogasunetara bideratu zituzten zergak aztertuko ditugu enpresaz enpresa.

• EAE

Egindako azterketak erakutsi du EAEko zenbait enpresa nagusik 1.247 milioi euroko kontabilitate-emaizta lortu zutela zergak ordaindu aurretik, baina 90,3 besterik ez zutela Sozietateen Zergan ordaindu. Beren zergekin ez zuten bidezko ekarpenik egin; aitzitik, enpresa hauek 2019an Sozietateen Zergan soilik %7,2 ordaindu zuten.

Zenbait kasu oso deigarriak eta mingarriak dira: enpresa batzuek, mozkin handiak lortu arren, ez zuten euro bakar bat ere ordaindu zerga horretan. Horien artean daude Petronor (135 milioi euroren etekinak), Tubacex (6,5 milioi), Bridgestone (11,5 milioi), Pepsico (16,5 milioi) edo GKN (8,3 milioi). Beste enpresa ezagun batzuek ere etekinen gaineko oso zerga gutxi ordaindu zuten, esaterako ITPk (%4,6ko tasa erreala); Kutxabank (%4,6); CIE Automotive (%5,4); Aernnova (%7,6); ArcelorMittal (%10,3), edota Euskaltel (%11,1). Aipagarria da analizatutako enpresa kooperatiboek oso zerga gutxi ordaindu zutela, edo bat ere ez. Adibidez, Ampok eta Danobatek etekinengatik ez zuten ia euro bat ere ordaindu (%0,1 besterik ez), eta Irizarrek, irabazitakoaren %4,9.

EAEan analizatu ditugun enpresen artean bik ordaindu zuten %20tik gora: Papresak, %27,5, eta Construcciones Amenabarrek %22,7. Hortik gertu geratu ziren Norbega eta Vinzeo, 2019an etekinen gaineko %19 ordaindu baitzuten.

4. taula. EAEko 20 enpresa nagusien Sozietateen Zergaren ordainketa eta zerga aurreko etekina, 2019

	Zerga aurreko etekina	Ordaindutako zerga	%
Aernnova Aerospace, S.A.U	55.526.000	4.226.000	7,6
AMPO, S. COOP.	6.430.000	23.000	0,3
ArcelorMittal Aceralia Basque Holding, S.L.	89.183.358	9.188.756	10,3
Bridgestone Hispania Manufacturing, S.R.L	11.507.000	0	0,0
CIE automotive, S.A.	118.547.000	6.434.000	5,4
Construcciones Amenabar, S.A.	30.114.029	6.822.454	22,7
Danobat, S. COOP	7.281.000	8.000	0,1
Eulen, S.A.	48.949.000	3.120.000	6,4
Euskaltel, S.A	67.822.000	7.561.000	11,1
GKN Driveline Zumaia, S.A.	8.338.000	0	0
Irizar, S. Coop.	40.081.000	2.879.000	7,2
ITP, S.A. (S.U)	166.476.000	7.623.000	4,6
Kutxabank, S.A.	209.603.000	9.656.000	4,6
Cía. norteña de bebidas gas., S.L.U. (Norbega)	36.771.774	6.581.939	17,9
Papresa, S.A	16.484.226	4.530.582	27,5

HEHko fiskalitateari buruzko txostena: erreforma justu baten premia

Compañía de bebidas Pepsico, S.L.	16.467.000	0	0
Petronor, S.A.	135.336.000	0	0
Tubacex, S.A.	6.499.425	0	0
Vidrala, S.A.	164.381.000	19.556.000	11,9
Vinzeo Technologies, S.A.U	11.940.803	2.161.357	18,1
GUZTIRA	1.247.737.615	90.371.088	7,2

19. or

Iturria: Azterketa Bulegoak egina, kontu ofizial eta auditore-txosteneko datuekin.

• NAFARROA

Ondorengo taulan jaso dugu Nafarroako hamar enpresa nagusienetakoen 2019an ordaindutako Sozietateen Zerga, eta horrek kontabilitate-emaiztarekiko esan nahi duen portzentajea (kontu ofizialen eta auditore-txostenen arabera). Enpresa hauek guztiek banaka ordaintzen dituzte zergak Nafarroan eta azken ekitaldian emaitza positiboa izan dute.

Ikus daitekeenez, enpresa guztien artean zerga aurreko 333,5 milioi euroren etekina lortu dute; Sozietateen Zergan 39,4 milioi ordaindu dute (%11,7). Kasu batzuk bereziki deigarriak dira: Viscofanek 100 milioi euro irabazi eta %0 ordaindu du; Acciona Energía 38 milioiren etekina izan eta %4,3 ordaindu du, edota Azkoyenek 13 milioi euro irabaziagatik ez du ezer ordaindu.

5. taula. Nafarroako 10 enpresa handiren Sozietateen Zergaren ordainketa eta zerga aurreko etekina, 2019

	Zerga aurreko emaitza	SZ ordaindua	Etek. ganean ordain. (%)
Acciona Energía S.A.	37.927.000	1.616.000	4,3
AN S.COOP.	7.928.000	393.000	5
Azkoyen, S.A.	12.990.000	0	0
Faurecia Emissions Control Tech. Pamplona, S.L.	10.068.000	2.231.000	22,2
TRW Automotive España, S.L.	22.175.000	5.022.000	22,6
Ultracongelados Virto, S.A.	11.682.985	1.733.791	14,8
U.V.E., S.A.	10.827.679	730.832	6,7
Vega Mayor, S.L.*	11.971.000	1.047.000	8,7
Viscofan, S.A.	105.286.000	0	0
Volkswagen Navarra, S.A.	104.649.000	26.606.000	25,4
GUZTIRA	335,5	39,4	11,70


* 2019ko ekitaldiko daturik ez dago; informazioa 2018koa da.

Iturria: Azterketa Bulegoak egina, kontu ofizial eta auditore-txosteneko datuekin.

4.3. Iruzur fiskala

Kenketa, doikuntza eta hobariez gainera, kontutan izan behar da enpresek beren ingeniari-tza fiskalari esker egiten duten iruzurra. Gogoratu beharra dago sozietateen zergak soilik karga-tzen dituela enpresa eta sozietateek lortutako etekinak; beraz, etekinik ez edo galerak aitortzen dituztenek ez dute zerga hau ordaintzen. Zerga honetan dagoen iruzurraren adierazgarri da EAEn 2017ko ekitaldian, berriro ere enpresa eta sozietateen % 63,1ak galerak aitortu zituela, eta %9,6ak, 6.000 eurotik beherako irabazia. Nafarroan 2018an 19.043 sozietatek egin zuten Sozietateen Zergako aitortpena; horien artean 5.408k (%28,4ak) zero aitortpena egin zuten, eta 6.033k (%31,7ak) galerak aitortu zituzten. Hau da, enpresa eta sozietateen %60,1ek aitortu zuten 2018an ez zutela irabazirik izan, edo dirua galdu zutela. Begi-bistakoa da datuok ez direla erreali-tatearen isla.

15. grafikoa. Enpresen emaitza EAEn (2017) eta Nafarroan (2018)



Iturria: Azterketa Bulegoak egina, Euskal Ogasunaren Urteko Txosten Bateratuaren eta Nafarroako Ogasunaren datuekin.

Gainera, aipatu behar da autonomoen aitortpenean egiten den iruzurra. Horren adierazgarri da laneko errentek EAEn 2017ko ekitaldian batez beste 24.897 euro aitortu zutela, jardura ekonomikoek aitortu zituzten 15.492 euroak baino 9.405 gehiago. Nafarroan lan-errentek 2018an batez beste 21.157 euro aitortu zituzten; aldiz, enpresa eta profesionalen errentek kopuru horren erdia baino gutxiago, 8.767 eta 9.475 euro, hurrenez hurren. Datuok erakusten dute iruzur fiskala ekiditeko ikuskaritza areagotu behar dela, sozietateen zergan bezala.

6. taula. EAEn PFEZean batez beste aitortutako errenta 2017an

Lan-errentak	24.897
Jarduera ekonomikoak	15.492

Iturria: Euskal Ogasunaren Urteko Txosten Integratua.

7. taula. Nafarroako errentaren jatorri funtzionala 2018an (etekin nagusia eurotan)

Lan-errentak	21.157
Enpresa-errentak	8.767
Errenta profesionalak	9.475

Iturria: Nafarroako Ogasuna.

5. PRESIO FISKALA ETA EUROPA BAITAKO KONPARAZIOA

Zerga-sistemaren atal desberdinak aztertuta, Europar Batasuneko herrialdeekiko alderaketa egitea dagokigu. Horri esker, nazioartean dugun posizio konparatiboa zein den jakin ahal izango dugu, eta fiskalitatearen alderdi bakoitzean dugun tartea ezagutu ahal izango dugu. Horretarako, presio fiskala kalkulatu behar dugu, hau da, zenbat den administrazioek guztira biltzen dutena ekonomiak sortzen duen aberastasunari dagokionez.


5.1. Guztizko presio fiskala

Europar Batasun guztiari (27 kide) dagokion azken datua 2019koa da; EBeko Argitalpen Bulegoak dioenez, %40,1ko presio fiskala egon zen. Altuena Danimarkak izan zuen (%46,1), eta ondoren Frantzia eta Belgika.

Aldiz, EAEko presio fiskala 2019an BPGren %32,3koa izan zen. Grafikoan ikus daiteke Europar Batasuneko azken postuetan egon zela. EB-27ko batez besteko mailarekiko aldea 2019an BPGaren 7,9 puntukoa izan zen. Honek esan nahi du 2019an EAEko presio fiskala EB-27ko batez besteko mailan egon balitz 5.976 milioi euro gehiago bilduko zela.

Nafarroako presio fiskala 2019an BPGren % 31koa izan zen. Nafarroa EAEn atzetik kokatu zen, eta presio fiskal apalagoa soilik bost herrialdek izan zuten. Horien artean dago Irlanda, paradisu fiskalaren pareko eremua. EB-27arekiko aldea 9,1 puntukoa izan zen 2019an. Honek esan nahi du urte horretan presio fiskala EB-27ko batez bestekoaren parean egon balitz 2.005 milioi gehiago bilduko zirela, hots, %29,3 gehiago.


16. grafikoa. EB-27ko presio fiskala (BPG %) 2019an



Iturria: Azterketa bulegoak egina, Europar Batasuneko Argitalpen Bulegoaren, Gizarte Segurantzako Diruzaintza orokorraren, Eustaten, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Sailaren eta Nafarroako Ogasunaren datuekin.

2008 eta 2019 bitarteko bilakaera aztertuz gero, EB-27ko batez besteko presio fiskalaren bilakaerak adierazten du hamar urte horietan presio fiskala 1,6 puntu hazi zela, %38,44tik %40,07ra. Greziak izan zuen hazkunderik handiena (7,7 puntu), eta ondoren Eslovakiak (5,4 puntu). EAEen portzentajea ez zen mugitu. Nafarroari dagokionez, 2019ko presio fiskalak 1,8 puntuko igoera izan zuen 2008 urtearekiko.

17. grafikoa. Presio fiskala 2008an eta 2019an EBeko herrialde batzuetan (%)



Iturria: Azterketa bulegoak egina, Europar Batasuneko Argitalpen Bulegoaren, Gizarte Segurantzako Diruzaintza orokorraren, Eustaten, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Sailaren eta Nafarroako Ogasunaren datuekin.

Ondoren xehatu egingo dugu presio fiskala, zerga-figuren arabera, EB batez besteko mailarekiko aldea erabakitzeko. Horrela ikusiko da zein den diru gutxien biltzen duen figura eta zeinek eman dezakeen etekin handiagoa.

- Zuzeneko zerga bidez EAEn BPGren %10,2 bildu zen; Nafarroan, %9,7a. Europar Batasuneko batez besteko maila %13,3an zegoen. Aldea %3,1ekoa da EAerekiko eta % 3,6koa, Nafarroaren kasuan.
- Zeharkako zerga bidez bildutako kopurua EAEn %11,1ekoa izan zen eta Nafarroan % 9,8koa. Europar Batasuneko batez besteko maila %13,7koa izan zen. Hau da, aldea %2,6koa eta %3,9koa izan zen.
- Gizarte-kotizazioek EAEn %11,3ko pisua izan zuten eta Nafarroan % 11,5ekoa. Beraz, EBko batez besteko maila (%13,1) baino puntu eta erdi beherago geratu ziren.

8. taula. Presio fiskala zerga-figuren arabera 2019an (% BPG)

	Zuzenekoak	Zeharkakoak	Kotizazio sozialak	Guztira
EAE	%10,2	%11,1	%11,3	%32,3
Nafarroa	%9,7	%9,8	%11,5	%31
EB-27	%13,3	%13,7	%13,1	%40,1


Iturria: Azterketa bulegoak egina, Europar Batasuneko Argitalpen Bulegoaren, Gizarte Segurantzako Diruzaintza orokorraren, Eustaten, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Sailaren eta Nafarroako Ogasunaren datuekin.

5.2. Sozietateen Zergaren presio fiskala

Sozietateen zergarekin bildutako diruaren pisua batez beste BPGren %2,66koa izan zen 2019an EB-27an. Aldiz, EAEn %1,64koa izan zen, eta Nafarroan %1,24koa. Aplikatutako tasa txikiaren eta iruzur fiskalaren ondorioz, sozietateen zergari dagokion Nafarroako presio fiskalaren azpitik Europan Hungaria eta Letonia besterik ez daude. EAE oso hurbil dauka; soilik Lituaniak dauka presio fiskal arinagoa.

Luxemburgek, Ziprek eta Norvegiak zeukaten portzentajerik altuena, %5,92, %5,85 eta %5,46, hurrenez hurren. Alemaniak eta frantses Estatuak BPGren zatiari dagokionez europar batez bestekoaren antzeko maila zuten.

18. grafikoa. Sozietateen gaineko zergaren presio fiskala EB-27n (BPGren %) 2019an



Iturria: Azterketa bulegoak egina, Europar Batasuneko Argitalpen Bulegoaren, Eustaten, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Sailaren eta Nafarroako Ogasunaren datuekin.

Sozietateen zergaren presio fiskala europar batez besteko mailarekin parekatzeko EAEn 809 milioi euro gehiago bildu beharko lirateke. Hots, egungo kopurua baino %62 gehiago. Nafarroan EB mailara iristeko bildutako dirua %114 gehitu beharko litzateke. Hau da, 313 milioi gehiago. Beraz, tarte oso handia daukagu zergak igotzeko.

6. EZBERDINTASUNAK ZERGA ORDAINKETAN

Ikusi denez, itundutako zerga-ordainketaren pisua ia bete-betean BEZaren eta laneko PFEZaren gain erortzen da. Hau ez da zerga-sistemaren injustizia bakarra; zerga ordainketa bera ere modu injustuan taxututa dago.

6.1. Errenta orokorra eta aurrezki-errenta

EAEko eta Nafarroako PFEZaren aitortpenean, zergadunaren errentak errenta orokor edo aurrezkiaren errenta gisa sailkatzen dira. Errenta orokorraren tarifa orokorra zortzi tartekoa da EAEn eta hamarrekoa Nafarroan. EAEn, gutxieneko tasa marjinala % 23koa da, eta gehieneko tasa marjinala % 49koa. Nafarroan, tartekak % 13 eta % 52 artekoak dira. Lan-errentek (baita enpresa-jarduera profesional eta artistikoez ere) taula honen arabera ordaintzen dituzte zergak. Aurrezkiaren errentek (higiezin, akzioen, inbertsio-funtsen eta abarren salmentak), aldiz, aurrezkiaren tarifa ezartzen dute, % 20tik % 26ra bitarteko tributazioarekin. Ez da ahaztu behar tasa marjinala dela, eta, beraz, tasa erreala, batzuetan, adierazitako ehunekoen oso azpitik geratzen da.

Zergadunaren errenten sailkapenaren ondorioz, tasa hauekin, onuradun nagusiak dira kapital higiezin eta higigarrietan eta ondare-etekinetan irabazirik handiena lortzen duten pertsonak (hau da, ondasunak dituztenak edo finantzetan inbertitzeko ahalmena dutenak). Kapitalen etekinek aurrezkiaren zerga-oinarri gisa ordaintzen dituzte zergak, eta gehienez ere %25eko tasa dute EAEn eta %26koa Nafarroan. Gainera, zerga-tasa ez da inola ere progresiboa, baina ez soilik ge-

hieneko tasa apala delako; baizik eta, 30.000 zein 1.000.000 euroren etekinak aitortzen dituzten pertsoneri zerga-tasa maximo bera aplikatuko zaielako. Horri gehitu behar zaio oinarri orokorraren tarreak handitu egin direla, baina aurrezkiaren oinarriarenak 2014tik ez dira hazi.

Errentaren sailkapen bikoitz honek ez dauka justifikaziorik, justizia sozialaren ikuspuntutik. Sistema honen ondorio bakarra da aurrezkiia sustatzen dela, hots, horretarako ahalmena dutenei mesede egitea. Beraz, eredu honek berarekin dakar desberdintasun sozialak areagotzea eta klase altuei mesede egitea, klase apalen bizkar.

6.2. BGAEak

Izaera erregresiboa handia duen beste kontu bat BGAE edo pentsio planei ematen zaien tratua da. Eskura dagoen EAeri buruzko informazioak honakoa adierazten du:

Murrizketak mesede gehien sarrerarik altuenak dituztenei egiten die. 6.000 eta 18.000 euro bitarteko oinarria dutenen %24ak egiten ditu ekarpenak BGAEren batera; aldiz, portzentajea %70ekoa da 66.000 eurotik gorako oinarria dutenen artean.

Diru-sarrerarik handienak dituztenei murrizketa askoz handiagoa egiten zaie batez beste, sarrera txikiagoak dituztenei baino. Urtean 18.000 eurotik beherako oinarria dutenek urtean batez beste egiten duten ekarpena ez da iristen 1.500 eurora. Aldiz, 66.000 eurotik gorako taldeak, batez beste, ia 5.000 euroren ekarpena egiten du. Murrizketa portzentajea, gainera, handiagoa da errenta altuentzat, izan ere, murrizketa oinarrian aplikatzen baita; ondorioz, tasa marjinala arintzen da, eta hori handiagoa da sarrera handiagoak dituztenen kasuan.

BGAEra egindako ekarpena kapital gisa erreskatatzen denean (hau ez dator pentsioen osagarri izateko kontzeptuarekin bat), banakako planen ohiko modua hori baita (kolektiboak edo negozio-azio kolektibokoak gehienbat errenta gisa kobratzen dira, esaterako Geroan edo Elkarkidetzan), zerga gutxiago ordaintzen da. Kasu honetan jasotzen den kapitalaren %40 salbuetsita geratzen da, eta hori ezin da inola ere onartu.

7. ZERGA-POLITIKARI BURUZKO ONDORIOAK

2008ko krisia hasi zenetik hamahiru urte igaro dira; eta hamahiru urte horietan suspertze ekonomikoa desberdina izan da. Sektorerik txiroenen baldintza materialek okerrera egin dute (eros-ahalmenaren galera, pobreziaren hazkundera, etab.); alabaina, kapital handiak eta oligarkiak gero eta etekin handiagoak metatu dituzte, baina irabazi horrek ez du ekarri kolektibo aberatsenek ekarpen handiagoa egiterik. Aitzitik, ikusi dugunez, gero eta zerga gutxiago ordaintzen dute. Beraz, fenomeno honek ez dauka zerikusirik egoera ekonomikoarekin, enpresek gutxiago ordaintzen dute krisialdian, baina baita hazkunde ekonomikoa indartsua denean ere.

Arlo honetan eskumena duten administrazioek ahalbidetu dute zerga-sistema gero eta bidegabeagoa eta birbanaketaren kontrako noranzkoan joatea. Lan-errentek kutxa publikoetara ekarpen handiagoa egiten dute, eta kapital-errentek gero eta urriagoa; eta horrek kapitala metatzen eta aberastasuna gutxiengo baten eskuetan pilatzen laguntzen du. Ondorioa begi-bistakoa da: kapitalismoaren krisi ekonomikoak funtzionalak dira kapitalaren erreproduktzioarako.

Txosten honetako ondorioei buruz ez dago eztabaida asko egiterik. Diru gutxi biltzen da, eta gaizki:

1. 2020rako egin zen aurreikuspenarekiko diru-bilketaren jaitsiera EAEn % 11,5ekoa eta Nafarroan % 10ekoa izan zen . Datuek adierazten dute zergarik kaltetuenak BEZ eta Sozietateen Zerga izan zirela.
2. Zerga nagusien bilakaerak erakusten du 2020ra bitarteko goranzko joera izan zela BEZak eta lan-errenten PFEZak izan zuten igoeraren ondorio. Hala ere, sozietateen zerga bidez bildutako diru kopurua ez da aldatu 2010etik hona.
3. Lan-errentek sostengatzen dituzte kutxa publikoak, eta bilakaerak adierazten du urtez-urte fenomeno hau gero eta nabarmenagoa dela.
4. Sozietateen zergaren analisiak erakusten du enpresa handiek oro har oso gutxi ordaintzen dutela, eta benetan ordaintzen duten tasa arauan ezarritakoa baino askoz apalagoa dela. Aipatu beharreko beste kontu bat da iruzur fiskal izugarria dagoela sozietateen zergan eta soldatapekoak ez diren errentetan.
5. EAEko eta Nafarroako presio fiskala (% 32,2 eta % 31, hurrenez hurren) Europar Batasuneko azken postuetan dago, batez besteko mailatik (% 40,1) askoz beherago. Gainera, Sozietateen zergak ezartzen duen presio fiskala ere Europar Batasuneko rankingaren amaieran dago.
6. Zerga-sisteman eta errenta aitortenean egiten den sailkapen bikoitzaren ondorioz (zerga-oinarri orokorra eta aurrezkiaren zerga-oinarria), gehien irabazten dutenek lortzen dute PFEZ aitortenean onurarik handiena.

Ondorioz, enpresek ordaintzen dituzten zergak nabarmen igotzeko tarte handia dago. Hau justizia sozialaren ikuspuntutik ezinbestekoa da, esaterako izugarrizko etekinak lortuagatik euro bat ere ordaintzen ez duten enpresei ordainarazteko, zerbitzu publikoen eta gizarte-babesaren garapenerako dagokien ekarpena egin dezaten. Egoera honekiko ardura politikoa agerikoa da. Botere ekonomikoak eta politikoak elkar hartuta jokatzeko dutela oinarritzko gaitan nabari da, esaterako fiskalitatean. Ate birakariak eta fiskalitatea txanpon beraren bi aurpegiak dira.

8. PROPOSAMENAK

Aberastasunaren banaketa justuagoa behar da. Horretarako erakundeek hainbat tresna dituzte, esaterako zerga-politika, zeinak balantza alde batera edo bestera lerra dezakeen. Fiskalitateak bi xede nagusi ditu: lehenik, beharrezkoa den gastu publiko maila finantzatzeko adina diru biltzea eta, bigarrenik, bidezko banaketa egitea nork eta zenbat ordaintzen duen erabakitzerakoan. Horregatik, guk dakartzagun alternatibak interes orokorraren eta justizia sozialaren baitan kokatzen dira.

ELAk aspaldidanik galdegin izan du zerga-sistema goitik behera aldatu beharra. Azken hiletan gertatu den diru-bilketaren beherakada zorpetze publikoaren igoerarekin konpentsatu nahi da. Zorpetzea erabiltzearen aurka ez bagaude ere, beharrezkoa da diru-bilketa handiagoa ekarriko duten neurri zehatzak hartzea, errenta altuek, kapitalak, ondareek eta enpresek beren mozkinengatik ordaintzen dituzten zergen igoera handiaren bidez. Bestela, 2008ko krisiaren ondoren gertatu zena errepikatuko da: orduan aurrekontu egonkortasun arauak ezarri ziren (zeintzuk debekatu egiten duten gastu publikoa Madrilek urtero erabakitzen duten kopurutik gora gehitzea)

eta zorraren ordaina lehenetsi zen. Beraz, aipatutako moduko zerga-erreformarik egin ezean, funts europarren markoaren baitan, etorkizuneko aukera bakarra murrizketak izango dira.

8.1. Zerga-erreforma

ELAk berretsi egin ditu azken urte eta hilabeteetan plazaratu dituen proposamenak. Uda baino lehenago zerga-erreforma bat egin behar da, igoera nabarmena izan dadin enpresen etekinek, aberastasunak eta errenta altuek ordaintzen dituzten zergetan, sindikatuak 2020ko maiatzean Covid-19aren krisi sanitario, ekonomiko eta soziala gainditzeko egindako proposamenen harira. Horretarako ELAk eskatzen du Eusko Legebiltzarrean, Batzar Nagusietan eta Nafarroako Parlamentuan berehala sor dadila berariazko batzorde bat, erakunde sindikal eta sozialen parte hartzearekin, zerga-erreforma eztabaidatzeko. Zehazki, ELAk honakoa proposatzen du:

• PFEZ

1. Errenta altuen zerga-tasen igoera; atzera eragin behar zaie azken urteetako jaitsierei, zeintzuk tasa horiek izugarri murriztu dituzten eta zergaren progresibotasuna zeharo ahuldu duten.
2. Errenta guztiei zergaren taula orokorra aplikatu behar zaie; kendu egin behar da kapitalari ezartzen zaion tasa espezifiko (oso injustua, arestian esan dugun moduan).
3. BGAE eta Pentsio Planen zerga ordainketa aldatu. Nolanahi ere ezin dute izan kotizazio sozialek eta pentsio publikoek bezain tratu onuragarria. Eta enplegu-erakundeek tratu hobea izan behar dute banakoek baino. Gainera, kapital-erreskateari ematen zaion pribilegiozko tratua bertan behera utzi behar da, honek ez baitauka zerikusirik pentsio osagarri batekin.

• Sozietateen Zerga

1. Kenkari eta pizgarri fiskalak kendu eta ingeniarietza fiskala galarazi.
2. Ekitaldiko etekinen gaineko % 25eko tasa nominala ezarri, salbuespenik gabe.
3. Etekinak (eta, horrenbestez, sarrera eta gastu errealak) haiek sortzen diren lurraldean aitortze-
ra derrigortu.
4. 2020ko etekinen gaineko % 20ko errekaru berezi bat ezarri. Errekargua ezartzea berez erabaki beharra zegoen enpresek zerga honen aitortzea egin baino lehenago, baina ez dute aplikatu nahi izan EAEko ogasunek, ezta Nafarroako Gobernuak ere. Honela 1.750 milioi euro bilduko lirateke EAEn eta 400 Nafarroan.

• Ondarearen Zerga

1. Berehala ezarri behar da errekaru espezifiko eta progresibo bat, % 1 eta % 10 bitartekoa. Honela 2.000 milioi euro bilduko lirateke EAEn, eta 500 milioi Nafarroan.
2. Zergaren tasa bikoiztu.
3. Zerga honetan eta PFEZaren baterako tributazio muga kendu.

8.2. Iruzur fiskalaren jazarpena

Iruzur fiskala jazartzea funtsezko auzia da. Izan ere, politika jakin batzuk justifikatzeko baliatu ohi den argudioa -ez dagoela diru nahikorik eta eskura dauden baliabideekin ezin dela gehiago egin-faltsua baita. Horrexegatik ELAk galdatu izan du Ogasunei behar beste bitarteko ematea solda-tapekoak ez diren errenta guztiak preskripzio epea amaitu aurretik ikuska ahal ditzaten. Honek esan nahi du gehienez lau urteko epean ikuskatu behar direla enpresa guztiak, kapital errentak eta jarduera ekonomikoak.

8.3. Zerga-politika EAeko eta Nafarroako Parlamentuetan erabaki

ELAk galdegiten du zerga guztien araugintza Hego Euskal Herrian erabaki dadila. EAEn beharrezkoa da zergei buruzko erabakiak Eusko Legebiltzarrean hartzea. Hau litzateke hiru lurraldeen arteko harmonizazioa areagotzeko modurik egoki, demokratiko eta gardenena. Gainera, erabaki hau hartzen ez den artean ELAk galdatzen du balia dadila legeak ematen duen aukera, zeinaren arabera Legebiltzarrak hiru lurraldeetako arautegia harmoniza dezakeen.

8.4. Araugintza-ahalmen osoa

ELAk galdatzen du arlo fiskaleko araugintza-ahalmen osoa. Hots, eremu honetako eskuduntzak, erabat Eusko Jauriaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren ardurapean egotea. Egun soilik zuzeneko zergei buruzko araugintza dago haien esku. Haatik, zeharkako zergak eta gizarte-kotizazioak Madrilan erabakitzen dira oraindik. Gainera, zerga hauek Ogasunen sarreretako zatirik handiena osatzen dute, eta horrek Hego Euskal Herriari burujabetza fiskala ebasten dio.

8.5. Europa baitako harmonizazioa

Zuzeneko zergetan harmonizazio fiskalik ez egoteak xede bat du, dumping fiskalari bide ematea. Horregatik ELAk galdegiten du europar eremuan zerga hauetan goranzko harmonizazio fiskalari ekitea. Herrialde guztietan gutxieneko tasa bat ezarri beharko litzateke, hala sozietateen zergan nola beste zergetan (PFEZ, ondarea, etab.), hartara enpresa eta zergadunak ez daitezen joan zerga gutxiago ordaintzen den estatu batera. Gutxieneko tasa horiek altuak izan behar dira, justizia fiskal eta soziala bermatzeko.

